

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko irailaren 20an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Martinez andrea eta Ezpeleta jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 20 de setiembre de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Martínez y el Sr. Ezpeleta.

## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2012-07-19 eta 2012-08-01

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

### **2.1- Hartutako erabakien gaineko informazioa.**

2012ko irailaren 14ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da ondorengo erabakiaren berri:

#### **ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** 674

**DATA:** 2012-09-06

**GAIA:** ESKUORDETZA ALDAKETA ZENBAIT ZERBITZUREN ZUZENDARITZAN ETA KUDEAKETAN

**ESPEDIENTEA:**

**INTERESDUNA:**

2011ko uztailaren 5eko Alkate erabakiz udal zerbitzu batzuen zuzendaritza eta kudeaketa eskuordetu zitzaien hainbat zinegotziri. Eskuordetze horrek ez zekarren berarekin hirugarrenengan ondorioak dituzten egintza administratiboak emateko eskumena.

Leire Urzelai Letona zinegotziak bere karguari uko egiteko idazkia aurkeztu zuen 2012ko maiatzaren 30ean.

Udalbatzarrak uko horren berri jaso zuen eta uko hori 2012ko ekainaren 4an gauzatu zen.

Leire Urzelai Letonak ondorengo zerbitzuen zuzendaritza eta kudeaketa zituen eskuordetuta:

- \* Ingurumen zerbitzua.
- \* Turismo zerbitzua.
- \* Parte-hartze zerbitzua.

2012ko abuztuaren 1ean, Igor Ezpeleta Oregui jaunak zinegotzi kargua hartu zuen Leire Urzelai Letonaren ordez.

Izandako aldaketaren ondorioz, eta udal zerbitzuak hobetzeko, beharrezko ikusten dut hainbat aldaketa egitea bere garaian emandako eskuordetzetan.

*Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 44. artikuluan jasotakoa ikusita, Alkate naizen honek honako hau*

**ERABAKI DUT**

*1.- Behean aipatuko diren zinegotziei zerbitzu baten zuzendaritza eta kudeaketa eskuordetzea. Zinegotzi horiek ez dute inolako eskumenik hirugarrenengan ondorioak dituzten egintza administratiboak emateko.*

*HIRIGINTZA ARLOA: gaur egunera arte egindako eskuordetzeak mantentzen dira.*

*\* Hirigintza zerbitzua: ez da eskuordetzen.*

*\* Obrak eta zerbitzuak: Jose Mari Herce Isasmendi*

*\* Elizateak-Azpiegiturak: Iñaki Madinabeitia Elorza*

*HAZIENDA ARLOA: gaur egunera arte egindako eskuordetzeak mantentzen dira.*

*\* Hazienda zerbitzua: ez da eskuordetzen.*

*GIZARTE ZERBITZUAK ARLOA: gaur egunera arte egindako eskuordetzeak mantentzen dira.*

*\* Gizarte Zerbitzua: Arantza Iregui Villar*

*\* Prebentzio zerbitzua: Arantza Iregui Villar*

*\* Osasun zerbitzua: Arantza Iregui Villar*

*\* Berdintasun zerbitzua: Itziar Martínez Iregui*

*KULTURA ARLOA: Aldaketaren bat dago*

*\* Kultura zerbitzua: Jose Angel Petralanda Gil*

*\* Euskara zerbitzua: Iker Akizu Olabe*

*\* Kirol zerbitzua: Igor Ezpeleta Oregui*

*\* Gazteria zerbitzua: Itziar Martínez Iregui*

*\* Hezkuntza zerbitzua: Itziar Martinez Iregui*

*\* Jaiak zerbitzua: Jose Angel Petralanda Gil*

*GARAPEN JASANGARRIA ETA PARTE-HARTZE ARLOA: Aldaketaren bat dago*

*\* Ingurumen zerbitzu: Igor Ezpeleta Oregui*

*\* Turismo zerbitzua: Igor Ezpeleta Oregui*

*\* Ekonomia eta enplegu zerbitzua: ez da eskuordetzen.*

*\* Parte-hartze zerbitzua: ez da eskuordetzen.*

*\* Komunikazio zerbitzua: Igor Ezpeleta Oregui*

*PERTSONAL ETA GOBERNU ARLOA: ez da eskuordetzen.*

2.- Izendapen horien ondorioz hirugarrenengan eragingo duten ekintza administratiboak erabaki ezingo badituzte ere, zinegotzi bakoitzak bere ardurapeko zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketaren ardura izango du, ondorengo betebeharrez gain:

- a) Zerbitzuak behar bezala funtziona dezala zaintzea.
- b) Zerbitzua zuzendu, bultzatu eta ikertzeko beharrezko aholkularitza teknikoa eskatzea.
- c) Zerbitzuko gaien berri arloko batzordeburuari ematea.

3.- Erabaki hau dagokien zinegotziei eta Udalbatzari jakinaraztea eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Erabaki honek sinatze dataren biharamunetik aurrera izango du indarra.

Erabaki hau irmoa da administrazio-bidean. Berorren aurka administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi-errekursoaren aurretik, berraztertzeko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztiori, eskubideak hobeto babesteko egokitzat jotzen diren bestelako ekintza edo errekrutsorik jartzearen kaltetan gabe.

Argitara ematen dena, denek jakin dezaten.

*Eskoriatzan, 2012ko irailaren 6an*

*ALKATEA,*

### **3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

- UDAL ORDEZKARI BERRIAK IZENDATZEA HAINBAT ERAKUNDE ETA ELKARTEETAN.
- DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA, SA ( sozietate xurgatzailea) ETA DEBA GOIENEKO INDUSTRIALDEA SA (sozietate xurgatua) XURGAPEN BIDEZ BATEGITEKO PROIEKTUARI BURUZKO ERABAKIA.

### **4.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAITZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA: Iuzapen proposamena.**

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiekin alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

2012ko uztailaren 31n hasita urte betez luzatzea LANDUREkin sinatutako kontratua Eskoriatzako berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua emateko.

Merino jaunaren boto azalpena. Hitzez hitz transkribatzen da: luzapenaren aurka bozkatuko dut. Uste dut politika moduan udalak bere gain hartu behar dituela zerbitzuak, horien artean, hau eta ondoren datorrena. Negoziazio mahaian eztabaida betean gaude, edo, gutxienez, horrelako gaietarako sortu zen mahai bat, eta gauza bat esaten ari gara eta beste bat egiten. Uste dut ez duela koherentziarik, eta horregatik kontra bozkatuko dut.

Merinok esandakoari Alkateak erantzun dio gai hori bitariko batzordean aztertzen ari direla dagoeneko, eta bideragarritasun azterketak egin behar direla, bere ustez beharrezkoak edozein erabaki hartu baino lehen. Era berean, aipatu du gaur egun ezinezkoa dela legalki langile berriak sartzea plantillan.

## **5.- KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA: Iuzapen proposamena.**

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalatzarkide guztiak alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

2012ko abuztuaren 14an hasita urte betez Iuzatzea CESPArekin sinatutako kontratua kaleak garbitzeko zerbitzua emateko.

(Aurkako bota justifikatzeko aurreko puntuaren esandakoa aipatu du Merino jaunak)

## **6.- UDAL ORDEZKARI BERRIAK IZENDATZEA HAINBAT ERAKUNDE ETA ELKARTETAN.**

Leire Urzelai Letona zinegotziak bere karguari uko egiteko idazkia aurkeztu zuen 2012ko maiatzaren 30ean.

Udalbatzarrak uko horren berri jaso zuen eta uko hori 2012ko ekainaren 4an gauzatu zen.

Leire Urzelai Letona udal ordezkari izendatuta zegoen hainbat erakundetan.

2012ko abuztuaren 1ean, Igor Ezpeleta Oregui jaunak zinegotzi kargua hartu zuen Leire Urzelai Letonaren ordez.

Aldaketa hori kontuan izanik, beharrezko da udal ordezkari berria izendatzea zenbait erakunde eta elkartetan.

Azaldutako arrazoiengatik, Alkateak udal gobernu taldeak egindako proposamenaren berri eman du.

Proposamena ezagututa, hitza hartu dute honako hauek:

- Urrutia jaunak dio abstentu egingo dela, bere garaian ere abstentu egin zelako, eta esan duenez, bata zein bestea izan berdin zaiolako. Industrialdeko eta Teleskoko ordezkariari buruz galdu du.

Egindako galderei buruz Alkateak erantzun dio industrialdeko ordezkaria Alkatea dela, eta Teleskokoari dagokionez, berriz, esan du momentuz ez dagoela kiderik izendatuta batzordean, oraindik udal talde politikoek ez dituztelako izen abizenez proposatu eta Junta ere ez delako eratu.

- Merino jaunak esan du bera ere abstenitu egingo dela. Esan du bere garaian ere abstenitu zela, eta gai hau gobernu taldeak erabaki beharrekoa dela.
- Cantero jaunak honako hau dio: nik aurka bozkatuko dut, hainbat erakunde eta elkartetarako ordezkarriak izendatzeko erabaki honetan ez delako kontuan hartzen Udal honetan dagoen proportzionaltasuna. Hau da, udal ordezkariez ari gara, eta, beraz, asko edo gutxi denok dugu zer esanik, baina, gobernu taldekoak kenduta besteok inolako ordezkaritzarik ez izatea ez zait egokia iruditzen.

Eztabaida amaituta bozketa eginda, eta Cantero jaunak aurka bozkatuta, Urrutia eta Merino jaunak abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak, ondorengo erakunde eta elkartetan ordezkari berriak izendatzea ERABAKI DU:

- ***UR KONTSORTZIOA:***

Titularra: Beinat Herce Leceta  
Ordezkao: Jose Mari Herce Isasmendi

- ***LUIS EZEIZA HERRI IKASTETXEKO, ALMENEKO ETA HAURRESKOLA KONTSORTZIOKO ESKOLA KONTSEILUAK***

Titularra: Itziar Martínez Iregui  
Ordezkao: Beñat Herce Leceta

- ***MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ESKOLA KONTSEILUA***

Titularra: Beñat Herce Leceta  
Ordezkao: Itziar Martínez Iregui

- ***ESKORIATZAKO UDALAREN ETA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA***

Igor Ezpeleta Oregi

- ***21 AGENDAKO PROZESUAK EZARTZEKO ARDURADUNA***

Titularra: Igor Ezpeleta Oregi

Ordezkao: Beinat Herce Leceta

- ***DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEKO BATZORDE INFORMATZAILEAK***

**BATZORDEA: KONTUAK, HAZIENDA ETA PERTSONALA**

Beinat Herce Leceta

**BATZORDEA: INGURUMENA**

Igor Ezpeleta Oregi

**BATZORDEA: GARAPEN EKONOMIKOA ETA TURISMOA**

Beñat Herce Leceta

## **7.- MIGRAZIO ZERBITZU BERRIA SORTZEKO PROPOSAMENA.**

Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzailea kargu egitea MIGRAZIO arloari buruzko gaiez, eta arlo horri zerbitzu izaera ematea.

**Bigarrena.-** Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udaleko antolamendu eta jarduera araudiko 17. eta 20. artikuluen aldaketa. 17. artikuluan egindako aldaketa hau izan da: GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN eskumenen artean "migracio zerbitzua" sartzea; eta 20. artikuluan, berriz, hau: migracio azpibatzorde berria jasotzea bertan. Erabakia jendaurrean jartzea 30 lanegunez.

## **8.- BATZORDE INFORMATZAILE BERRIA SORTZEKO PROPOSAMENA: AZPIEGITURAK BATZORDE INFORMATZAILEA.**

Bertaratutako guztiekin ezagutzen dute Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamena. Proposamena hau da: Azpiegitura batzorde informatzaile iraunkorra sortzea.

Alkateak hitza hartu du eta batzorde informatzaile iraunkorra sortu beharrean AP-1 autopistaren gaineko gaiak aztertzeko batzorde berezia sortzea proposatzen du. Horretarako arrazoi hauek eman ditu:

- Proposamena egin zenean ez zen ezagutzen batzorde berezien figura.
- Hirigintza batzordean jorratzen diren gaiak (hirigintzari, obra eta zerbitzuei eta elizateei buruzkoak), berez, denbora asko behar izaten dituzte bileretan, eta eskatzen duten denbora hori etorkizun hurbilean autopistarekin lotuta aztertu beharko direla aurreikusten diren gai kopuruaren kalitatean izango litzateke. Azken gai horiek horretarako bakarrik eratutako batzordean aztertzeko behar beste garrantzi izango dute.

Jakinarazi du ere batzorde hori sortzea erabakitzeko baldin bada, batzordearen lehendakaritza Iñaki Madinabeitia zinegotziari eskuordetzeko asmoa dagoela, eta batzorde horretara joango dela orain dela gutxi plantillan sartu den OPITA.

Proposamen berria ezagutarazi ondoren, honako hauek hitz egin dute:

Urrutia jauna: nik ez dut ulertzen horretarako arrazoia. Orain sortu behar da batzorde hori? Zer dago orain? Autopista bakarrik? Eta, trena? Nortzuk izan behar dira batzorde horretako kide? Zer izan behar da? Totum revolutum bat? (zer esan nahi duen azaldu du) autopistari buruzko batzorde batzuetan izan naiz, eta behin baino gehiagotan izan dudan sentsazioa izan da zinegotziok zer esanik ez genuela. Eta hori izan behar baldin bada auzoalkateek, auzoalkateen aholkulari teknikoek eta batzordean parte hartzen duten guztiekin bota izateko lekuren bat, uste dut gehiago zehaztu behar dela zeintzuk izan behar diren funtzionamendu baldintzak. Udaleko beste edozein batzorde informatzaile baten moduan izan

behar baldin bada, bada, bai. Gainera, autopista esaten da, baina, zer gertatzen da trenarekin?

Alkate jauna: Laster hitzarmen bat sinatuko da Bidegirekin autopistako neurri zuzentzaileak egiteko. Uste dugu lan karga garrantzitsua izango dela, eta ondorioz, ba, operatiboak izateko; izan ere, bi ordutik gorako bilerak ez dira eraginkorak, eta gutxiago, bukaeran azterzeko lagatzen diren gaiak. Horren aurrean batzorde arrunta sortzea pentsatu dugu, udaleko beste edozein modukoa. Positiboa eta garrantzitsua iruditzen zaigu auzoalkateek parte hartzea batzorde horretan, baina, gauza bat da parte hartzea eta, beste bat, bota eman ahal izatea, eta idazkariak jakinarazi zigunez, ezin dute boto eskubiderik izan. Hirigintza batzordearen edo udaleko beste edozein batzorderen moduan funtzionatuko du, baina, udalaren antolaketa erregelamenduak ahalbidetzen duenez gai batean interes zuzena dutenek batzordeetan parte hartzea, hemendik aurrera parte hartzeko aukera hori izatea proposatzen da.

Eztabaida amaituta, Urrutia jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** AP-1 AUTOPISTAKO GAIETARAKO BATZORDE INFORMATZAILE BEREZIA sortzea.

**Bigarrena.-** Ondorengo osaera eta erregimena finkatzea.

- Osaera:

Presidentea: Alkateak eskuordetutakoan, Iñaki Madinabeitia Elorza

Idazkaria: Arloko teknikaria

Botodun batzordekideak: ondorengo zinegotziak udal talde politiko bakoitzak proposatuta:

Beñat Herce LEceta

Iker Akizu Olabe

Aitor Urrutia Oyanguren

Juan Luis Merino Sanabria

Jose Luis Cantero Morcillo

- Aldizkakotasuna: hilero, batzordeburuak jarritako egun eta orduan.
- Eskumenak: AP-1 autopistarekin lotutako gaiak.

## **9.- BATZORDE INFORMATZAILE BATZUETAN KIDEAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Leire Urzelaik karguari uko egin ziolako eta Igor Ezpeleta zinegotzi izendatu, Udal zerbitzu batzuen kudeaketaren eskuordetzean zenbait aldaketa izan ziren. Hori dela-eta, Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak proposamena egin du Kultura batzorde informatzailera, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzailera eta Garapen Jasangarria eta Parte-Hartze batzorde informatzailera atxikitako zinegotziak aldatzeko.

Egindako proposamenaren arabera, eta Urrutia, Merino eta Cantero jaunek aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako batzordekideek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

1.- Ondoren zerrendatuko diren zinegotziak batzordetako kide atxiki bezala izendatzea.

### **GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILEA**

Arantza Iregui Villar  
Jose Mari Herce Isasmendi  
Itziar Martínez Iregui  
Aitor Urrutia Oianguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

#### **KULTURA BATZORDE INFORMATZAILEA**

Jose Luis Petralanda Gil  
Itziar Martínez Iregui  
Igor Ezpeleta Oregui  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oianguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

#### **GARAPEN JASANGARRIA ETA PARTE-HARTZE BATZORDE INFORMATZAILEA:**

Beinat Herce Leceta  
Igor Ezpeleta Oregui  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Aitor Urrutia Oianguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Gainerako batzorde informatzaile iraunkorrek bere garaian batzorde horietara atxikitako zinegotziak mantentzen dituzte.

#### **10.- ESKORIATZAKO UDALERRIKO IRABAZI ASMORIK GABEKO KULTUR ELKARTEEI ETA TALDEEI 2012AN EGITEKO EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2012an egiteko ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzeari 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

**11.- ESKORIATZAKO KIROL TALDE ETA ELKARTEEI 2012. URTEAN GARATUKO DITUZTEN JARDUERA ETA EKINTZETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**- Eskoriatzako kirol talde eta elkarteei 2012. urtean garatuko dituzten jarduera eta ekintzetarako diru-laguntzak emateko oinariak onartzea.

**Bigarrena.**- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinariak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.**- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.**- Alkate jaunari ahalmena ematea oinariak onartu ondoren bertan auraututako diru laguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

**12.- JUAN LUIS MERINO SANABRIA ZINEGOTZI JAUNAK ERAKUNDE AUTONOMOETAN ETA UDAL ELKARTE PUBLIKOETAN DITUEN KARGUEI EGINDAKO UKOAREN BERRI IZATEA.**

Udalbatzarra jakitun gelditzen da Juan Luis Merino Sanabria zinegotziak Eskoriatzako Industrialdea SAn eta Telesko Udal Telebista fundazioan dituen karguei uko egin diela. Uko egite horren arrazoia da Eusko Legebiltzarrerako datozen hauteskundetan hautagai izan behar dela, eta kontuan izanik Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 4.3.e) artikuluan ezarritakoa, ezin duela inolako kargurik bete toki erakunde autonomoetan edo udal kapitala duten enpresetan.

**13.- DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA, SA (sozietate xurgatzalea) ETA DEBA GOIENEKO INDUSTRIALDEA SA (sozietate xurgatua) XURGAPEN BIDEZ BATEGITEKO PROIEKTUARI BURUZKO ERABAKIA.**

Alkateak hitza hartu ondoren, Sprilur elkarte publikoak bultzatzen duen Debagoiena eta Debabarra industrialdeen bategitearen aurka bozkatzea proposatzen du. Aurka bozkatzeko arrazoiak hauek direla esan du:

- Ez dago justifikatuta horretarako arrazoi ekonomikorik, ez da ulertzten gastua arruntean murritzeta % 20ko izango dela esatea, baliabide pertsonalak eta materialak lehengoak izan behar direlako.
- Udalek nabarmen galduko dute ordezkaritza.
- Eskualdean hutsik dauden bulegoak eta lurzatiak daude.

- Ohiko jarraibidearen aurka, kapital gutxiagoko elkarrean xurgatuko du kapital gehiagokoa.
- Bategitea eginda, ez dago atzera bueltatzerik.

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Eusko Jaurlaritzaren menpeko Sprilur elkartea publikoak sustatzen duen Debagoiena eta Debarren industrialdeen bategitearen aurka azaltzea. Bategite horren bidez, Deba Beheko Industrialdea S.A.k Debagoieneko Industrialdea S.A. xurgatuko du.

#### **14.- EZKER ANITZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA LANGILE PUBLIKOEN ESKUBIDEEI BURUZ.**

Hitza emanda, Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

##### Langile publikoen eskubideen aldeko mozioa

Espainiako Gobernuak, Ongizate-Estatuaren eraispen estrategia barruan, langile publikoen eskubideei erasotzen ari zaie behin eta berriz.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege-Dekretu-legeak, aurrekontuzko egonkortasuna bermatzeko eta lehiaren sustapenerako, oinarrizko izaeraz PP-eko gobernuak dikttatu duena, sektore publikoko pertsonalaren abenduaren aparteko ordainsaria 2012rako kendu du, eta egun libreei, aldi baterako ezgaitasunik edo ordu sindikalik egotekotan osagarriei, buruzko beste neurri batzuk inposatzen ditu.

Hori baino lehen, 2072011 Errege-Dekretu-Legeak, beste neurri batzuk onartzen zituen, batez ere enplegu-pentsio planetarako transferentziak 2012an debekatzea edo lanaldiaren handitzea.

Neurri hauek, gaurko krisi ekonomikoaren efektuak bidegabe enplegatu publikoen gainean berriz erori egiteaz gain, ez du errespetatzen Estatuaren eta Euskal Autonomi-Erkidegoaren arteko konpeticioa banaketa, ez udal-autonomia, eta horregatik ez du aplikaziorik izan behar Euskadin. Neurri hauek milaka langile publiko eragiten dute, udal honetakoak barne. Hauei, 2010etatik % 20a murriztu zaie bere soldatu, Udal honek onartutako akordioak unilateralki hautsiz.

Jarduera ekonomikoaren oinarien eta plangintza orokorraren koordinazioaren gaineko Estatuaren eskudunak ezin du hartu hain kontu partikularak eta zehatzak enplegatu publikoen ordainsari-erregimen espezifikoa bezalakoa. Aipaturiko araua gure Udalean aplikatzea bere eskumenen aukako eraso garbia onartzea da.

PP-ren Gobernuak zaitasun ekonomikoengatik justifikatzen du neurri hau, beste batzuk bezala, baina aldi berean mila milioiko transferentziak bankuetara onartu egiten ditu, baita amnistia fiskala ere, eta Eliza Katolikoari hobari eta pribilegioak mantentzen zaizkio langile publikoen aparteko ordainsaria baino askoz diru gehiago suposatzen dutena.

Horregatik guztiagatik beharrezko da sektore publikoa desegiteko gobernu espanyiarraren, estrategiari uko egitea, eta udal-gobernuari esijitzea eraso hauen lagunzailea izan ez dadila, eta eraso hauek ez aplikatzeko beharrezko neurriak har dezatela, udal langileekin heldutako akordioak eta udal-Aurrekontuen aurreikuspenak errespetatuz.

Horregatik guztiagatik Ezker Anitza-Izquierda Unidak Osoko Bilkurara aurkezten du

#### MOZIOA

AURREKOIA: Eskoriatzako Udaleko Osoko Bilkurak abenduaren aparteko ordainsariaren ezabapenari, EPSVs-etara ekarpenen debekuari, eta Gobernu Espainiarrak onartutako udal langileon eskubideen aurkako gainerako erasoei bere gaitzespena adierazten du.

BIGARRENA: Eskoriatzako Udaleko Osoko Bilkurak udal-aurrekontuak, eta udal langileekin heldutako akordioak errespetatzeko eskatzen dio udal-gobernuari, horretarako, Udal langileen ordainsari eta itundutako lan ordutegia mantentzea ahalbidetuko dituen bideak bilatu behar izango ditu eta aplikatu ere.

Hitza eman ondoren, ondorengo hauetako hitz egin dute:

\* Iregui andreak adierazi du mozioa zertxobait hankamotz ikusten duela, eta honako hau gehitu du: ez nago esandakoaren aurka, baina, hankamotz ikusten dut, neurriak mundu guztiarentzako direlako, eta uste dut modu batera edo bestera jende askori eragiten diola horrek, eta ez bakarrik langile publikoi. Eta bakarrik udal honetako langileengan jartzen ari gara arreta. Eta Eskoriatza kontuan izaten baldin badugu, badira langile publiko gehiago ere, esate baterako, irakaskuntzakoak.

\* Alkate jauna mozioaren alde azaldu da, eta honakoa esan du: "gobernu talde honen asmoa izan arren eta izan den arren udal honetako langileen eskubideen alde egitea, Madrildik ezartzen dizkiguten neurriek zaildu egiten dute bide hori. Neurriak oso ondo "lotuta" datozenet, ez zaigu batere erraza egin behar horiek ez aplikatzea, baina, jakinarazi gura dut ahal dugun guztia egingo dugula udal honetako langileek urtez urte eskuratzent joan diren eskubideak bermatzeko". Ondoren jakinarazi du neurri horien ondorio negatiboak saihesteko hainbat bide aztertzen ari direla, eta ohartarazi du, horiek horrela, ez duela jokatuko prebarikazioa edo gaitasungabetzea ekar dezakeen moduren batean. Azkenik, udal langileak eta eskoriatzako herritarra gonbidatu ditu irailaren 26rako deitutako greban parte hartzera.

Cantero jauna: guk mozioaren alde bozkatuko dugu, erabat ados gaudelako mozioan azaldutako arrazoiekin. Hasieratik gaitzetsi ditugu gobernu zentral berriak egindako murrizketa guztiak. Arantzak bezala, nik ere uste dut ez garela hitz egiten ari bakarrik udal langileez, baizik eta honek langile publiko guztiei eragiten diela. Gertatzen dena da lege aldetik zalantzaren bat dugula udalak zenbaterainoko tartea izan dezakeen derrigorrez betebeharreko lege arau diren murrizketa horiei aurre egiteko, eta hori da gure ustez zehazteko zaila izan daitekeen gai bakarra. Hau da, politikoki ados gaude testuarekin, baina, praktikan jartzerakoan arazo juridikoak egon daitezke.

Alkateak berriz ere esan du beraiek ados daudela, betiere, hartzeko eskatutako neurriek legea betetzen baldin badute.

Merino jaunak erantzun du berak ez duela nahi inork prebarikatzerik, mozio honekin gura dena dela neurri horien ondorioak saihesteko formulak bilatzea. Gehitu du mozioa udaletxeko langileengan pentsatuta aurkeztu dela, baina, egia dela neurri horiek langile guztiei eragiten dietela eta hori beste mozio batzuk egiteko arrazoia izan daitekeela.

Urrutia jaunak, mozioaren alde azaldu ondoren, honako hau esan du: ados gaude hor esaten denarekin eta baita lege aldetik sortzen diren zalantza guztiekin ere. Mozio bat da, borondate adierazpen bat, eta ez dut dudarik. Hala ere, batzuk gogoeta egin beharko lukete: batzuk desobedientzia zibila eskatzen dute, baina, dirudienez, kartzelatik eskatzeko da, zeren eta erakundeetan daudenean alde batera uzten dute desobedientzia zibil hori.

Cantero jaunak erantzun dio mozioak borondate adierazpena izan arren, praktikan jartzeko onartzen direla, alderantziz pentsatzea horiei balioa kentzea izango litzatekeela. Hau ere esan du: ideia da mozioan jasotakoa burutzeara eta zalantzak daude legezkotasunari buruz, eta ez dakigu horiek nola gainditu behar diren.

Eztabaida amaitu da eta jasota geratu da mozioarekin ez dela prebarikatzerik gura ez gaitasungabetze zigorrik ekar ditzakeen neurririk hartzerik ere.

Bozketa egin da, eta Madinabeitia eta Akizu jaunen abstentzioarekin eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, mozioa onartu da.

## **15.- GALDE-ESKEAK.**

### **15.1.- Hauteskunde mahaietako kideak hautatzeko zozketa.**

Merino jaunak galdu du ea ezin diren hauteskunde mahaietako kideak Eskoriatzako langabetuen artean zozketatu. Proposamen hori justifikatzeko esan du mahaikide bakoitzak ordainsari bat jasotzen duela eta hori interesgarria izan daitekeela langabetu batzuentzat.

Alkateak erantzun dio mamiarekin ados baldin badago ere, idazkariak ohartarazi duenez legalki ezin dela horrelakorik egin.

Idazkariak jakinarazi du zozketa publikoa izan behar dela, eta adin eta ikasketa aldetik finkatutako legezko baldintzak betetzen dituzten erroldatu guztiengan artean egiten dela, alegia, zozketa ezin dela mugatu langabetuen zerrendara.

19:40an Jose Mari Herce zinegotziak bilkura utzi du.

### **15.2.- ERLIJOEK OHZ-N DUTEN SALBUESPENA KENTZEARI BURUZKO MOZIOA.**

Merino jaunak mahaira ekarri du apirilaren 19ko osoko bilkuran onartutako mozioaren bigarren puntuoa. Hona hemen horren transkripzioa: “*Eliza Katolikoaren eta beste erlijio batzuen eta horien kideko erakundeen eta*

*elkarteen izenean Udal honetan erroldatuta eta erregistratuta dauden hiri eta landa ondasun higiezinen errolda egitea”.*

Erabakiaren berri eman ondoren, esan du ia urtebete pasa dela eta ez dela egin ezer.

Alkateak erantzun dio diru-bilketa departamentuan baja bat egon dela eta horrek eragin handia izan duela lan kargan. Ordenantzak aztertzeko urrian egingo diren hiru hazienda batzordetara gonbidatu du, eta esan dio bilera horietan izango duela beste zerga batzuei buruz mozio horren antzeko beste planteamenduak egiteko aukera ere, eta horrela, eztabaideatu eta erabaki ahal izango direla.

Madinabeitia jaunak eskatu dio hobeto zehazteko eta definitzeko zer ulertzen duen Elizaz, eta bere ustez elizaren diren erakundeen zerrenda egiteko. Esan du zehaztasun hori beharrezkoa izan behar dela eskatu duen zerrenda egin behar duten langileentzat.

Eskaera dela-eta, eztabaidea sortu da zehaztasun hori beharrezko den edo ez. Alkateak amaitutzat jo du eztabaidea eta esan du salbuetsita dauden ondasun higiezin guztiengarri zerrenda egingo dela, eta behin zerrenda hori izanda aterako direla dagozkion ondorioak.

15.3- Merino jauna kexatu da ordezkari sindikalak ez duelako posta elektronikorik ez bere lan sindikala egiteko baliabiderik, nahiz eta hausteskundeetatik denbora asko pasatu.

#### 15.4.- Gaixotasun baja dela-eta, kirol instalazioetako kontserjearen ordezkapena.

Merino jaunak esan du kalean jakin duela kirodegiko kontserjearen ordez beste udal langile bat jarri behar dutela, eta aldaketa hori azaltzeko eskatu du.

Alkate jauna: uste dugu langile batek lan karga gutxiago duela, eta esan zaio ea prest dagoen kontserjeak egiten dituen funtziok ikasteko eta horren baja aldian funtziok horiek betetzeko.

Merino jauna: eta, langileak onartu du?

Alkate jauna: bai. Hainbat aldiz berba egin dugu berarekin, eta ez bakarrik kontu horretaz, baita bere egungo lanpostuaz ere. Hiru edo lau aldiz egon gara berarekin.

Merino jauna: sindakatuekin hitz egin duzue?

Alkate jauna: ez.

Erantzun horren aurrean, gutxienez itxura gorde eta egin gura denaren berri sindikatuei emateko eskatu du Merino jaunak.

Alkateak aitortu du horrela egin beharko zukeela, baina, ez dela egon ez sindikatuekin ez gainerako zinegotziekin, astean zehar egoteko asmoa zuela.

Urrutia jauna: nik ez dut esaten neurria ondo edo gaizki dagoenik, baina, ez dakit zenbaterainoko gogoeta egin den. Hori aurrekaria izan daiteke eta ez dakit noraino iritsi daitekeen. Izan ere, hori horrela bada, aurreko agintaldian egin ziren funtzioen deskripzio guztiak, egin zen balorazioa, non gelditzen dira? Gainera, aurrekari bat da, zeren eta, adibide bat jartzearren, orain Enrikek itzulpenak egiten baditu ere, bihar brigadak lan gehiegiz baldin badu, zer egin behar da? Hara bidali? Nik uste dut aldaketa guzti horiek kontu gehiagorekin egin behar direla, ez dut esaten aurrekari ona edo txarra izan daitezkeenik, baina, niri impresioa da gaur egun gobernu taldean

daudenak oposizioan egongo balira adjektibo ikaragarriak jarriko lizkieketela horrelako erabakiei, eta areago, egin diren bezala egin izan balira, hau da, alde bakarreko erabakia izanda, inori ezer esan gabe, langileen ordezkariei ezer esan gabe, eta gainerakoak kalean horren berri izanda. Zuk, Juan Luis, esan duzu sindikatuko ordezkariek zer esanik ote duen hemen, baina, niri impresioa da nork duen zer esanik hemen.

Alkateak amaitutzat jo du eztabaida eta onartu egin ditu egin zaizkion kritikak informaziorik ez emateagatik, eta esan du hori guztiari horrela izan dela erabakia presaka hartu delako. Aurrekariari dagokionez, esan du langileen funtziak definituta daudela, baina, garaiak eta baita udal zerbitzuen beharrak ere aldatu ahala, langile batzuen funtziak ere aldatuz joan beharko direla, betiere, baldintza batzuk mantentzen direnean, esate baterako, maila bereko lanak izatea. Azkenik, aipatu du datorren pertsonal batzordean gai horri buruz eztabaidatu daitekeela horrela iritziz gero.

#### 15.5.- Kirol materiala berriztatzea.

Urrutia jaunak galdu du zenbat kostatu den gimnasioa berrizteko kirol materialak.

Alkate jaunak erantzun du materiala Aretxabaletako Udalarekin sinatuko den hitzarmen baten bidez berriztatuko dela, udaletako egoera ekonomikoa ez dela oso ona, eta asmoa elkarri laguntzea dela. Horregatik, esan du, erabaki dute, edo hobe esan, proposatu dute Aretxabaletak behar ez duen kirol materiala Eskoriatzari ematea eta Eskoriatzak Aretxabaletari ematea azken horrek ez duen zerbitzu bat, Eskola Agenda 21 zerbitzua.

Urrutia jaunak galdu du legezkoa ote den Eskoriatzako Udalak langile bat uztea Aretxabaletako Udalerri.

Alkate jaunak zehaztu du ez dela langile baten zerbitzua lagatzea, baizik eta zerbitzu bat hitzarmen baten bidez ematea dela.

Urrutia jauna: Eskola Agenda 21eko langileak definituta izango ditu bere funtziak, Aretxabaletan eta Eskoriatzan lan egin behar du? Eta, ekonomia ikuspegitik orekatuta dago hitzarmena?

Alkate jauna: esan dut udalen egoera ekonomikoa ez dela oso ona, eta Aretxabaleta eta Eskoriatzaren artean dagoen lankidetza ez dela mugatzen guztiaren balorazio ekonomikoa egitera; esan nahi dut Aretxabaletak askotan eskatu digula lagunten eta gu ere eurengana joan garela lagunten eske, eta beti elkarri lagundi diogula. Ez dakigu datorren hilean nork noren lagunten beharko duen. Uste dut jarrera oso positiboa dela, eta dena ez dela dirua. Elkar lagunten behar dugu, eta hitzarmen horretako bezalako jarduerak oso positiboa direla uste dut.

Urrutia jauna: eta langileen ordezkariek badu horren berri?

Alkate jauna: bera da ordezkarietako bat, besteak Eusko Jaurlaritzaren dagoen lan egiten du, eta ez dugu txarto ikusten bere zerbitzuak beste udal batir ere ematea, areago, udal horrek bere lagunten eman digunean.

Merino jaunak uste du gai honetan gobernu taldeak arrazoia duela, hitzarmen horrekin bi herriak irabazten ateratzen direla, eta zehatzago esanda, bi herrietako ikastetxeak.

#### 15.6. EAJren aurkako pintada

Urrutia jaunak eskatu du Elixoste elkartearren ostean EAJren aurka aspalditik dagoen pintada kentzeko.

15-7. Elkarkidetzarako ekarpenak.

Urrutia jaunak galdetuta, Alkate jaunak jakinarazi du Udalak ez duela Elkarkidetzako pentsio planetara erretirorako ekarpenik egiten uztailletik.

15.8. Udal taldeen ordezkariak Telesko Udal Telebistako Juntan.

Urrutia jaunak egindako galderari erantzunez, jakinarazten zaio Telesko Udal Telebistaren estatutuen arabera, erakunde autonomo horretako juntako udal taldeen ordezkariek ez dutela zertan zinegotziak izan behar.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 20:05ean Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

2012-09-20an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 20-09-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko irailaren 20an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Martinez andrea eta Ezpeleta jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 20 de setiembre de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Martínez y el Sr. Ezpeleta.

## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 19 de julio de 2012 y el 1 de agosto de 2012.

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

### **2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 14 de setiembre de 2012 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta expresa sobre el siguiente acuerdo:

#### **RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA**

**Nº:** 674

**FECHA:** 6-09-2012

**ASUNTO:** CAMBIOS DE DELEGACION EN LA DIRECCION Y GESTION DE ALGUNOS SERVICIOS

**EXPEDIENTE:**

**INTERESADO:**

*Por Resolución de Alcaldía de fecha 5 de julio de 2011 se delegó en diversos concejales la dirección y la gestión de algunos servicios municipales. Dicha delegación no conllevaba la competencia para dictar actos administrativos con efectos a terceros.*

*La concejala Leire Urzelai Letona, el 30 de mayo de 2012, presentó escrito manifestando su voluntad de renunciar al cargo.*

*La Corporación en Pleno tomó conocimiento de dicha renuncia y la misma se hizo efectiva el 4 de junio de 2012.*

*Leire Urzelai Letona tenía delegada la dirección y gestión de los siguientes servicios:*

- \* Servicio de Medio Ambiente
- \* Servicio de Turismo
- \* Servicio de Participación

*El 1 de agosto de 2012, en sustitución de Leire Urzelai Letona, tomó posesión en el cargo de concejal D. Igor Ezpeleta Oregui.*

*Habida cuenta del cambio producido, esta Alcaldía, para un mejor funcionamiento de los servicios municipales, considera conveniente introducir una serie de cambios en las delegaciones en su día realizadas.*

*Visto lo dispuesto en el artículo 21.3 de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local y en el artículo 44 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre.*

**HE RESUELTO**

1.- *Delegar en los concejales abajo citados la dirección y la gestión de un servicio. Dichos concejales, en cambio, no tienen competencia para dictar actos administrativos con efectos a terceros.*

AREA DE URBANISMO: *se mantienen las delegaciones realizadas hasta la fecha*

- \* *Servicio de Urbanismo: No se delega*
- \* *Obras y servicios: Jose Mari Herce Isasmendi*
- \* *Anteiglesias-Infraestructuras: Iñaki Madinabeitia Elorza*

AREA DE HACIENDA: *se mantienen las delegaciones realizadas hasta la fecha*

- \* *Servicio de Hacienda: No se delega.*

AREA DE BIENESTAR SOCIAL: *se mantienen las delegaciones realizadas hasta la fecha*

- \* *Servicio de Bienestar Social : Arantza Iregui Villar*
- \* *Servicio de Prevención : Arantza Iregui Villar*
- \* *Servicio de Salud: Arantza Iregui Villar*
- \* *Servicio de Igualdad: Itziar Martínez Iregui*

AREA DE CULTURA: *Se introduce algún cambio*

- \* *Servicio de Cultura: Jose Angel Petralanda Gil*
- \* *Servicio de Euskera : Iker Akizu Olabe*
- \* *Servicio de Deportes: Igor Ezpeleta Oregui*
